

MIKROKONTAKIZUN.KATEATUAK



MICRORRELATOS.ENCADENADOS

GORLIZKO.ANTZERKI.TALDEA

GRUPO.DE.TEATRO.DE.GORLIZ

-2020-

HAUSNARKETA ITXARONALDIAN

Maitane Loizaga

Bizitza honek hilko nau! – Burura etorri zait Nagusiari askotan entzundako esaldia.

Buff...hiru minutu geratzen dira eta zubia pasa behar...ariinnn badihoalaaaa....

Pipipipipi...

Ez....

Ez....

Segundu batengatik....

Orain ordu osoa hemen egon behar hurrengoaren zain...

Beti iruditu zait itxaronaldi deseroso, aspergarria, baita estresagarria ere.

Batzutan dibertigarria, baita alaia ere, hau da, zirrarez betea.

Gaur egun, batzuetan somatu bere ez da egiten nor pasatzen den gure albotik, nor jesartzen den aldamenean, ondoan, aurrean...

Neure bururari galdetzen diot, noiz galdu izan dugu pertzepzio hori?

Gogoratzen dot behin metroko bidai osoa barrez lehertuta pasa izana eta beste batean, gure barik, konturatu barik, niretzako ez zen galdera bati erantzuten ikustea nire burua.

Beti gustatu izan zait behatzea, entzutea, beharbada lotsatia izateak horretara bideratu nau, baina...ez da egia garrantzitsuagoa dala entzuten jakitea, hitzegiten jakitea baino? Hitzegiten, entzunez ikasten da baina hitzegiten, ez da entzuten trebatzen.

Mundu honetan gehiago entzungo balitz...Bakoitza berera eta mundua aldera...

Orain erronkak modan daudela, hor doa bat, saiatu egun batean eta entzun, itxaronaldi batean utzi mugikorra alde batera eta erreparatu. Berehala konturatuko zarete, teknologi berrien garai honetan zeozer galdu egin dala, asko, beharbada inoiz bueltatuko ez dana.

Zuk uste bueltatuko dala?

7

GORLIZKO.ANTZERKI.TALDEA
GRUPO.DE.TEATRO.DE.GORLIZ

